

2011ko Kontratazio Memoria

KONTUHARTZAIETZA
ETA AUDITORETZA
2012eko ABUZTUA



AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA	3
3	KONTRATUEN ERREGISTROAREN ESPARRUA	6
4	2011KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA	7
4.1.	2011KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KONTRATUAK	8
4.1.1.	TIPOLOGIAREN ARABERA	8
4.1.2.	ESLEITZEKO PROZEDURAREN ETA ERAREN ARABERA	20
4.1.3.	ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA	24
4.1.4.	HUTSIK GELDITU DIREN LIZITAZIOAK	26
4.1.5.	FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA	27
4.2.	2011KO EKITALDIAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK	28
4.2.1.	ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA	29
4.2.2.	LIZITATZAILEEN AZTERKETA	31
4.2.3.	ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK	36
4.2.4.	ESLEIPEN IRIZPIDEEN AZTERKETA	37

ERANSKINAK

I. ERANSKINA	2011n onartutako kontratuak, kontratu motaren arabera	53
II. ERANSKINA	2011n onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren arabera	54
III. ERANSKINA	2011n onartutako kontratuak, esleitzeko eraren arabera	55
IV. ERANSKINA	2011n onartutako kontratuak, espedientearen tramitearen arabera	56
V. ERANSKINA	2011ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, departamentuen arabera	57
VI. ERANSKINA	2011ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, kontratu motaren arabera	77
VII. ERANSKINA	2011ko esleipenak, departamentuaren, kontratu motaren eta lizitatzailleen arabera	95
VIII. ERANSKINA	2011ko esleipenak, lizitatzailleen arabera	113



1 SARRERA

Maiatzaren 20ko 34/2008 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duenak, Foru Aldundiak eta foru organismo autonomoek egindako kontratuak erregistratzeko eginkizuna esleitzen dio Kontuhartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuari. Orobat, eskatzen zaizkion eta bere eskumenekoak diren azterketa eta txostenak egitea ere agintzen zaio dekretu horretan.

Hori betez, Memoria hau aurkezten da, kontratazio administratiboari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketaren ikuspegi orokor bat eskaintzearren.

Memoria bi ataletan egituratuta dago:

1. Kontratazioari dagokionez, Foru Aldundiari aplika dakioken araudiari buruzko aipamen labur bat.
2. Zerbitzu horretan Foru Aldundiko kontratuen kudeaketari buruz dauden 2011ko datuen azterketa, barruan sartuta ekitaldiko lizitazioarekin edota kontratuen esleipenarekin lotutako alderdi desberdinei buruzko datu eta estatistikak zein 2010. urtearekiko konparaketak.

2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA

◆ Kontratazio administratiboari dagokionez aplika daitekeen legeria

2011ko ekitaldian honako legeria gertatu zaio aplikagarria Gipuzkoako Foru Aldundiari kontratazio administratiboari dagokionez:

- 1.- Hasteko, Estatuko Oinarrizko Legeria da aplikatzekoa (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua). Oinarrizko Legeria dira:
 - ⇒ 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, 2000ko ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onartzekoa.
 - ⇒ 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena.
 - ⇒ 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren legearen testu bategina onartzekoa.
 - ⇒ 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendua onartzekoa.
 - ⇒ 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, zati batean garatzen duena.



2.- Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomikoa ere aplikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11. artikulua Estatuko oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan garatu eta exekutatzeko eskumenak esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, kontratazioari dagokionez.

Gaiari buruzko araudi autonomikoa, nagusiki, honako xedapenen bidez gauzatu da:

- ⇒ 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
- ⇒ 12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzkoa.
- ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratisten Erregistro ofizialaren funtzionamendu arauak ezartzekoa.
- ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratazio Administrazioaren Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak ezartzekoa.

3.- Garapeneko legeria autonomikorik ezean, honako hauek dira aplikaziozkoak, alegia, Herri Administrazioen Kontratuen Legea (testu bateratua), Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, 1098/2001 eta 817/2009 Errege Dekretuak, eta kontratazioari dagokionez Estatuak ematen dituen eta oinarrizko legeria osatzen ez duten gainontzeko xedapenak.

4.- Azkenik, ordezko izaeraz, zuzenbide pribatua ere aplika daiteke.

◆ **Kontratazio administratiboari aplika dakioken Foru Araudia**

Lurralde historikoak ez du eskumenik kontratazio administratiboari dagokionez, bere Administrazioako organo desberdinen eskumenei dagozkien, eta, beraz, Autonomia Estatuak 37. artikuluan aitortzen dion auto-antolaketa eskumenaren barruan inskribatzen diren gaietan izan ezik. Atal honetan honako xedapen hauek aipatu behar dira:

- ⇒ Martxoaren 26ko 3/2002 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2002. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, kontratazio eta erosketa zentralizatuko kredituei dagokionez hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Bertan jasotzen denez, kudeaketa zentralizatuko kredituetan, kontratuak tramitatzea eta obligazioak baimendu, konprometitu eta onartzea, proposamenak organo eskudunari helarazita kredituen zenbatekoaren arabera, kudeaketa zentralizatua agindua duten departamentuei dagokie, Diputatuen Kontseiluak ezartzen dituen prozedurei jarraiki.



- ⇒ 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako egitura organiko eta funtzionala onartzen duten foru dekretuak.
- ⇒ 24/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundi Gorenaren Kontratuen Erregistroa sortu eta kontratistak kreditatzeko prozedura arautzekoa.
- ⇒ 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administrazioa sortu eta arautzen duena.
- ⇒ 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluko Erabakia, 1998ko otsailaren 24koa, Zerbitzu Orokorren Kontratazio eta Homologazio Mahaian hainbat ondasun eskuratze eta hornitze zentralizatukotzat jotzen dituen eta haien kudeaketa 1998ko ekitaldirako eta hurrengoetarako arautzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko apirilaren 24koa, kontratazio administratiboen alorrean Foru Aldundiko lan eta zerbitzuetan edo berak sustatutakoetan segurtasun eta osasun gaiari buruz bete beharreko arauak onartzen dituen (GAO. 2001-05-29).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko ekainaren 12koa, II. kapituluko hainbat partida kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituen.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2004ko otsailaren 3koa, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen luzapenetan erabili beharreko adierazle ofiziala ezartzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2005eko apirilaren 26koa, hainbat aurrekontu kontzeptu kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituen (2005eko ekainaren 7ko Erabakiak zuzendua).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko uztailaren 7koa, Aldundiko langileen 2009-2011ko lan baldintzak arautzen dituen. Erabakiaren 17. apartatuan, baldintza administratibo berezien agirietan langileen subrogazioa sartzea onartu zen.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko kontratuetan eta diru laguntzetan sartzea onartzen duena.



3 KONTRATUEN ERREGISTROAREN ESPARRUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta “Uliazpi Fundazioa” organismo autonomoak egiten dituzten administrazio kontratu guztiak erregistratu behar dira, betiere indarrean dagoen legeriari jarraituz kontratu txikitzat hartzen ez badira.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak ez dira jasotzen erregistroan, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren legearen testu bategina onartzekoak kontratu txikietarako finkatutako gutxienezko kopuruak gainditzen ez badira.



4 2011KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA

Hona hemen memoria honetan jasotzen diren kontratuak hautatzeko jarraitu diren irizpideak:

- 2011. urtean onartutako kontratuekin zerikusia duten datuak kontratazio espedientea urte horretan baimendu den prozesuei dagozkie.
- 2011. urtean egindako esleipenen datuek ekitaldi horretan aurrera eraman diren esleipenak islatzen dituzte, alde batera utzita kontratua aurreko ekitaldietan onartu den edo ez.
- Esleipen horiei buruzko datuak kontratu bat osatu dezaketen loteetako bakoitzari dagozkio. Horren arrazoia da zenbait kontratutan xedea lotetan banatuta dagoela. Lote bakoitzak esleipen eta exekuzio autonomoa izan dezakeen neurrian, kontratuaren gainerako loteen aldean, zerrendak eta estatistikak prestatzerakoan lote kontzeptuarekin egin behar da lana, eta ez, ordea, kontratu kontzeptuarekin. Horrexegatik, 2011. urtean esleitutako lote kopuru osoa kontratu guztiena baino handiagoa da.
- Beren zenbatekoagatik publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetarako finkatutako gehieneko muga barruan sartzen diren kontratuak prozedura horretan tramitatutzat hartu dira.

2011ko ekitaldian 166 kontratazio espediente onartu dira, 161.524.077,25 euro guztira. Ondorengo ataletan espediente horien banaketa aztertuko dugu hainbat irizpideri jarraituz.¹

¹ *Ikus laburturik Memoriaren I. eranskinean, 2011n onartutako kontratuak, departamentuen eta kontratu moten arabera sailkatuak*



4.1. 2011KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KONTRATUAK

4.1.1. TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Sektore Publikoko kontratuen Legearen testu bateginean araututako kontratu mota desberdinak kontuan hartuta, 2011. urtean onartutako kontratuak ondorengo taulan zehaztutako banaketa ageri dute. 2010. urtearekiko konparazio azterketa bat ere jaso da bertan.

KONTRATU MOTA	KOPURUA		ZENBATEKOA		
	2010	2011	2010	2011	% 2011/2010
Obrak	34	36	53.651.125,21	56.151.081,92	4,66%
Hornidurak	27	22	6.119.426,71	3.228.448,95	-47,24%
Zerbitzuak	123	91	98.803.132,23	20.408.005,58	-79,34%
Zerbitzuen kudeaketa	4	1	115.154.096,98	78.832.307,20	-31,54%
Bereziak	3	4	1.178.182,00	163.788,60	-86,10%
Pribatuak ²	12	11	2.173.975,00	2.698.445,00	24,12%
Esparru akordioa	0	1	0,00	42.000,00	100%
GUZTIRA	203	166	277.079.938,13	161.524.077,25	-41,70%

Aurkeztutako datuak 2010eko datuekin konparatuta, ikusten da bai Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen kontratuen kopurua eta baita haien zenbatekoa ere nabarmen jaitsi direla. 203tik 166ra jaitsi dira kontratazioak. Bestalde, lizitatutako aurrekontuak %41,70 egin du behera 2010eko zenbateko osoaren aldean [116 milioi euro inguru].

Honela, horniduren, zerbitzuen, zerbitzuen kudeaketa eta kontratu pribatuen kopurua jaitsi egiten da. Bestalde obra kontratuak eta bereziak gora egiten dute asko ez bada ere eta 2010. urtean ez bezala esparru akordio bat gauzatu zen.

Erabilitako kontratu motak kopuruaren aldetik aztertzen badira, jaitsierarik nabarmenena zerbitzu kontratuetan aurkitzen dugu [123 kontratutik 91ra]. Gainera, aipatu jaitsiera lizitatutako kopuruaren jaitsiera garrantzitsu batekin batera dator kontuan izanik 2010. urteko 98 milioitik 2011ko 20 milioitara pasatzen dela.


² Kontratu pribatuen barruan ondorengo negozioak sartu dira: salerosketak, errentamenduak, lurrazal eskubideen eskurapena, jabetza intelektuala ustiatzeko eskubideen eskurapena, erreproduzitu, banatu eta jendaurrean erakusteko eskubidearen eskurapena, aseguru kontratazioak eta publizitate babeseko kontratuak.



Kontratu mota bakoitzean lizitatutako zenbatekoari dagokionez, nabarmendu behar dira zerbitzu kontratuetan eta zerbitzuen kudeaketan ematen diren jaitsierak. Kontratu mota biak kontuan hartzen baditugu jaitsiera 105 milioi ingurukoa da.

Zenbakitan adierazita, zerbitzuen kudeaketako kontratuak nagusitzen dira, bere portzentajeak 2011n lizitatutako aurrekontuaren %48,81 hartzen duelako. Ondoren, obra kontratuak datoz zenbateko osoaren %34,76ko portzentajearekin. Zerbitzu kontratuak bestalde hirugarren tokian kokatzen dira aurrekontuaren %12,63a hartzen dutelarik.

Hiru kontratu mota horietan lizitatutako zenbatekoak batuta, Aldundiak 2011n lizitatutako zenbateko osoaren %96 baina gehixeago dira. Gainerako zenbatekoa honela banatzen da: hornidura kontratuak [%2,00], pribatuak [%1,67], bereziak [%0,10] eta eginiko esparru akordioa bakarra [0,03%],



Departamentuek onartu dituzten kontratuen kopuruari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak bestiek baino kontratu gehiago tramitatu dituela (%21,69). Ondoren, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua kokatzen dira (%18,07 eta %15,66 hurrenez hurren). Beste muturrean Diputatu Nagusia aurkitzen dugu, zazpi lizitazioekin iazkoan (%4,22).




Gastu baimenduari dagokionez, Mugikortasuna eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen da, bere gastu bolumenak 2011ko gastu osoaren %81,35 hartzen baitu. Atzetik, alde handiarekin hori bai, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua ageri da (baimendutako gastu osoaren %6,49) eta Gizarte Politikakoa (%5,98).

2011N ONARTUTAKO KONTRATUEN BANAKETA, DEPARTAMENTUKA


	KOPURUA	GUZTIA/ %	ZENBATEKOA	GUZTIA / %
Diputatu Nagusia	7	4,22%	1.355.958,00	0,84%
Ogasuna eta Finantzak	8	4,82%	961.701,13	0,60%
Gizarte Politika	16	9,64%	9.660.994,09	5,98%
Kultura, Gazteria eta Kirola	30	18,07%	3.190.541,90	1,98%
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	11	6,63%	993.404,75	0,62%
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	17	10,24%	991.638,82	0,61%
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	26	15,66%	10.486.971,65	6,49%
Mugikortasuna eta Bide Azpiegitureak	36	21,69%	131.404.102,01	81,35%
Zerbitzu Orokorrak	15	9,03%	2.478.764,90	1,53%
GUZTIRA	166	100,00%	161.524.077,25	100,00%



ONARTURTAKO KONTRATU KOPURUAREN BANAKETA



BAIMENDUTAKO GASTUAREN BANAKETA



Jarraian departamentuz departamentu xehatuko dugu informazio hori. Adierazi nahi dugu 2011. ekitaldian foru departamentuak berrantolatu egin direla eta urte honetan departamentu berriei loturiko datuez hitz egingo dugula soilik ondorengo lerroetan. Aurtengoan ezinezkoa da egitea aurreko ekitaldiarekiko konparaketarik departamentuen egiturak asko aldatu direlako.



Diputatu Nagusia

2011ko ekitaldian 7 kontratazio espediente onartu dira (guztira 1.355.958,00 euro), hau da, ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,84.

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Zerbitzuak	7	1.355.958,00
	7	1.355.958,00

Departamentu honek zerbitzu kontratuak erabili ditu soilik 2011. ekitaldiari dagokionez. Baimendutako gastuari dagokionez, lizitatu den kontratuen artean zenbatekorik handienekoa honakoa da: Gipuzkoako Foru Aldundiko langileentzako euskarazko trebakuntza [ALET programa] → 670.508,00 euro.

Ogasuna eta Finantzak

2011ko ekitaldian 8 kontratazio espediente onartu dira (guztira 961.701,13 euro), hau da, ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,60.

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Zerbitzuak	8	961.701,13
	8	961.701,13

Diputatu Nagusiak bezalaxe, Ogasuna eta Finantza Departamentuak zerbitzuen kontratuen kategoria erabili du bakarrik. Guztien gainera honakoa aipatuko dugu: Informatika Unitatean trataera dokumentaleko zerbitzuak emateko kontratua → 355.805,40 euro.



Gizarte Politika

Departamentu honek 16 kontratu egin ditu 2011ko ekitaldian, eta 9.660.994,09 euroko aurrekontua lizitatu du guztira. Ekitaldian hasitako kontratueterako, Foru Aldundiak baimendutako gastu osoaren %5,98 da gastu hori.

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Obrak	8	2.038.213,93
Zerbitzuak	6	7.622.780,16
Bereziak	2	0,00
	16	9.660.994,09

Departamentuak tramitatuko obra kontratuak ez dira batere handiak berauen diru kopuruari erreparatzen badiogu. Guztien artetik honako biak aipatuko ditugu 500.000 eurotik gora kokatzen direlako:

- Urnietako Etxeberri Plazan dagoen lokalean eraberritu eta egokitzeko proiektuko lanak → 581.215,70 euro.
- Arrasateko lokala eguneko zentro birgaitze psikosozial bihurtzeko proiektuko lanak → 547.834,42 euro.

Zerbitzuen kontratuen atalean aurkitzen ditugu Departamentuak lizitatu dituen bi kontratu handienak diru kopuruari begiratzen badiogu. Honako espedienteak dira:

- Haur eta nerabe gaietarako eskualdeko taldeen «HNET» proiektua gauzatzeko zerbitzuen kontratazioa → 4.882.273,30 euro.
- Eibarreko Egogain gerontologia zentroan zainketa pertsonalen zerbitzua ematea → 2.166.507,96 euro.




Kultura, Gazteria eta Kirola

Departamentuak honek 30 kontratazio espediente onartu ditu joan den ekitaldian, hauexek dira:

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Obrak	2	229.936,00
Hornidurak	2	242.839,38
Zerbitzuak	16	2.144.177,92
Bereziak	2	163.788,60
Pribatuak	8	409.800,00
	30	3.190.541,90

Aurkeztutako datuak aztertzen baditugu, ikus daiteke lizitatutako kontratuen erdiak zerbitzukoak direla eta kontratu modu honetan baimendutako zenbatekoa, zenbateko osoaren %67koa dela gutxi gorabehera.



Baimendutako zenbatekoa kontuan hartzen badugu hain zuzen ere, departamenduko kontratu guztien artetik zenbatekorik handiena duena honakoa da: Arteleku Zentruko ekintza eta zerbitzuei laguntza emateko zerbitzuak → 600.000,00 euro.



Departamentuko beste kontratazioen talde bat kontratu pribatuak osatzen dute. Zortzi dira tramitatutako espedienteak eta 400.000 euro inguru suposatzen dute. Guztiak ere kopuru txikiko kontratuak dira eta Gipuzkoako lurraldeko hainbat klubekin eginiko publizitate babesa dute xede.

Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa

Departamento honek, 2011. urtean zehar 11 kontratazio expediente onartu ditu ondorengo taulan jasotzen denez:

Kontratuak	Kontratuen kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Obrak	2	324.757,78
Hornidurak	2	149.520,97
Zerbitzuak	6	477.126,00
Esparru Akordioak	1	42.000,00
	11	993.404,75

Orokorrean kopuru txikiko kontratuak dira guztiak ere eta bakar batek ere ez du gainditzen 200.000,00 euroko muga. Tramitatu diren bi obra kontratuak dira handienak baimendutako kopuruari erreparatuz gero:

- ❑ Legionelosisaren kontrako lanak eta eguzki-bilketa termikoen sistemak ezartzea Tolosako sutetxean → 157.520,31 euros.
- ❑ Legionelosisaren kontrako lanak eta eguzki-bilketa termikoen sistemak ezartzea Ventas-Irungo sutetxean → 167.237,47 euros.

Bestetik, adierazi nahi dugu Esparru Akordioa erabili duen Departamentu bakarra izan del iazkoan. Honen xedea izan zen autoprestakuntza sistemaren bidez ingeles eta frantsez ikastaroak emateko enpresen hautaketa → 42.000,00 euro.



Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa

Departamentu honek 17 espediente onartu ditu 2011ko ekitaldian, eta milioi bat euro inguruko aurrekontua lizitatu du. Zerbitzu kontratua da gehien erabilitakoa (12 espediente) eta kontratu mota honetan izan da baimendua zenbateko handiena ere [Departamentuak baimendutako %50 baina gehiago].

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Obrak	1	71.800,00
Hornidurak	3	259.323,70
Zerbitzuak	12	553.870,12
Pribatuak	1	106.645,00
	17	991.638,82

Hurrengo hauxe da Departamentuak tramitatutako espedienteen artean zenbateko handiena izan duena: Gipuzkoako pinu-beldarrari aurre egiteko tratamendurako produktuak hornitzeko kontratazioa. 2011ko kanpaina → 177.684,00 euro.

Ingurumena eta Lurralde Antolaketa

Ingurumena eta Lurralde Antolaketa kontratu jarduera handieneko departamentuen artean dago, eta hori islatzen da bai tramitatu duen espediente kopuruan eta bai baimendutako gastu bolumenean.

Departamento honek, joan den ekitaldian, 26 kontratazio expediente onartu ditu ondorengo taulan zehazten denez:


Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Obrak	5	3.919.527,37
Hornidurak	1	120.000,00
Zerbitzuak	19	4.287.444,28
Pribatuak	1	2.160.000,00
	26	10.486.971,65



Obra kontratuen kapituluan aurkitzen dugu, ikuspegi ekonomikotik begiratuta kontraturik handiena, hauxe da: Araxes ibaiaren saneamendu proiektuaren obrak → 2.685.554,51 euro.

Halere, zerbitzuen kontratuen atalean aurkitzen dugu baimendutako gasturik handiena. Atal honetan badira milioi eurotik gora dauden beste bi kontratu:

- Gipuzkoako itsasbaterreko hondartzen garbiketa zerbitzuak → 1.990.114,00 euro.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren higiezin ondarean hainbat artapen eta mantentze zerbitzuak → 1.100.000,00 euro.



Lizitazio zenbatekoari dagokionez, ikus daiteke kontratu pribatuen atalean lizitatu duela Departamentu honek ekitaldiko kontraturik handienetako bat: Irunen salerosketa bidez higiezin bat erosteko kontratua hain zuzen ere → 2.160.000,00 euro. Geroago, Diputatuen Kontseiluak berak, uko egin zion herri intereseko arrazoiak tarteko, kontratua egiteari.



Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Departamentu honek 36 kontratu onartu zituen iaz, honela banatuta:

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Obrak	18	49.566.846,84
Zerbitzuak	17	3.004.947,97
Zerbitzuen kudeaketa	1	78.832.307,20
	36	131.404.102,01

Kontratu motak aztertuta, bi dira zenbatekoan nagusiak: obra kontratuak eta zerbitzuak kudeatzeko kontratuak. Bi kategoria horiek 2011n lizitatutako zenbateko ia osoa pilatzen dute.

Gastu baimenduari espedienteak banaka hartuta erreparatzen badiogu, ondoko bi espedienteak nabarmendu behar ditugu, iaz baimendutako gastuaren %82 hartzen baitute. Horietako lehena zerbitzuak kudeatzeko kontratu bat da, eta bigarrena obratakoa:

- Erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko Debarrena eta Urola Erdia, Urola Kosta eta Donostiarekin lotura zerbitzu publikoaren kudeaketa → 78.832.307,20 euro.
- N-634 errepidearen Zarautzko saihebidetaren 1. zatia (Asti – Vista Alegre) proiektuko obrak → 28.359.967,67 euro. Geroago uko egiten zaio kontratua egiteari.

Zerbitzuen kontratuen atalean ikusten da espedienteak ikuspuntu ekonomikotik txikiagoak direla antzeman daiteke. Guztien artetik honako hau aipatuko dugu bere kopuruagatik: Foru Aldundiaren sareko errepideetan segurtasun hesiak jartzeko zerbitzuak → 676.759,16 euro.



Kudeaketa zentralizatua

Gastu tipologia honetan, kudeaketa eta kontratazioa Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuak egiten ditu, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan araututako Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaiaren bitartez.

15 kontratu tramitatu dira Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez, 2.478.764,90 € guztira.

Kontratuak	Kontratu kop.	Zenbatekoa
	2011	2011
Hornidurak	14	2.456.764,90
Pribatuak	1	22.000,00
	15	2.478.764,90

Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez gehien tramitatzen den kontratu mota hornidurena da: kudeaketa zentralizatukotzat aitortutako kontratu guztien %93. Litzitazio zenbatekoaren ikuspuntutik ere hornidura kontratuak ageri dira lehen tokian, ia lizitatutako aurrekontu guztia hartzen dutelarik.

Zenbatekoaren arabera, honako kontratuak nabarmentzen dira:

- Esku Hartzeko eta Suhiltzaile Parkeak Kudeatzeko Zerbitzuarentzako lur orotako eta hirirako bi autotankeren hornidura → 590.000,00 euro.
- Bide Azpiegituretako Departamenturako errepideak garbitzeko bi makina erostea → 408.000,00 euro.



4.1.2. ESLEITZEKO PROZEDURAREN ETA ERAREN ARABERA

Administrazio kontratuen prozedura eta esleipen moduei dagokienez, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen testu bateratuak honako eskema ezarri zuen:

ESLEITZEKO PROZEDURA	ESLEITZEKO ERA
IREKIA	ENKANTEA LEHIAKETA
MURRIZTUA	ENKANTEA LEHIAKETA
NEGOZIATUA: <input type="checkbox"/> publizitatearekin <input type="checkbox"/> publizitaterik gabe	

Eskema hori bera ageri da Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legean eta geroago 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren legearen testu bategina onartzekoan, baina aldaketa batzuk sartuta. Horrela, beste figura bat agertzen da, elkarrizketa lehiakorra deiturikoa, oraindik ezein departamentuk erabili ez duena. Elkarrizketa lehiakorrean, kontratazio organoak elkarrizketa bat antolatzen du hautatutako izangaiekin, horiek hala eskatu ondoren, haien premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko, eta irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako izangaiek eskaintza bat aurkez dezaten.

Kontratuak esleitzeko erari dagokionez, araudi berriaren arabera, bereizi daitezke balorazio irizpide bakarra prezioa duten kontratuak (memoria honetan enkanteekin parekatu dugu) eta hainbat esleipen irizpide duten kontratuak (lehiaketekin parekatu ditugu). Hori guztia egiten da kontuan hartuta sailkapen hori ez dagoela berariaz jasota SPKL-ren inongo xedapenetan, ezta ere geroago, testu bateginean.

Ondoko taulan Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011n onartu dituen kontratuei buruzko datuak ikus daitezke, esleipen prozeduraren arabera banatuta³:

³ Ikus Memoriaren II. eta III. eranskinetan, 2011n onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren eta eraren arabera.



ESLEIPEN PROZEDURA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONT. KOP./ %	ZENB. OSOA/%
Irekia	68	154.484.298,41	40,97%	95,64%
Murriztua	0	0	0	0
Negoziatua, publizatua	2	180.000,00	1,20%	0,11%
Negoziatua, ez-publizitua	96	6.859.778,84	57,83%	4,25%
GUZTIRA	166	161.524.077,25		

Lehendabizi, aipatu behar da prozedura murriztua ez dela erabili Gipuzkoako Foru Aldundiaren ezein espedientetan, eta, alde horretatik, aurreko ekitaldietan bezalaxe jokatu da.

Aurreko taulan jasotako datuei jarraituz, Foru Aldundiko departamentuek hiru prozedura erabili dituzte kontratuak esleitzeko. Alde batetik, prozedura irekia dugu, eta, haren bidez, 68 kontratu lizitatu dira, alegia, kopuru osoaren %40,97 eta baimendutako gastu osoaren %95,64.

Bestalde, publiziterik gabeko prozedura negoziatua dela medio 96 kontratu lizitatu dira, kopurua osoaren %57,83. Hala ere, kasu honetan bere kuantifikazio ekonomikoa askoz txikiagoa da, lizitatutako zenbateko osoaren %4,25 baino ez. Gainerako kontratuak (%1,20) zenbateko osoaren %0,11 dira, eta prozedura negoziatua erabilia eta publizitatea eginda esleitu dira.

Zifra horiek erakusten dute publiziterik gabeko prozedura negoziatuek pisu handiagoa dutela lizitazio kopuruan. Segur aski, horren arrazoia neurri batean da prozedura hau erabiltzeko ezarrita dauden behe mugak gehitu egin direla.

Departamentuen arabera aztertuta, emaitza hau ageri da:



	Kontratu kopurua			Zenbatekoa (%)		
	Irekia	Negoziatua, publizitua	Negoziatua, ez-publizitua	Irekia	Negoziatua, publizitua	Negoziatua, ez-publizitua
Diputatu Nagusia	3	2	2	77,08	13,27	9,65
Ogasuna eta Finantzak	4	0	4	83,32	0	16,68
Gizarte Politika	7	0	9	89,96	0	10,04
Kultura, Gazteria eta Kirola	11	0	19	57,32	0	42,68
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	5	0	6	44,78	0	55,22
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	0	0	17	0	0	100
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	10	0	16	89,70	0	10,30
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	23	0	13	99,22	0	0,78
Zerbitzu Orokorrak	5	0	10	75,91	0	24,09
GUZTIRA	68	2	96			

Datu horien arabera, sei dira departamentuak erabili dutenak gehiagotan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua kontratuak esleitzeko garaian. Era honetan prozedura hau erabiliz kontratuak tramitzeko gorako azken urteetako joerak bere horretan jarraitzen du.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko arrazoiei dagokienez, legeak aurreikusitako kasuetatik departamentuek honako hauek argudiatu dituzte:

- Arrazoi tekniko edo artistikoak, edo eskusibotasun eskubideak babesteko arrazoiak, lanen exekuzioa enpresari bakar baten esku uztea dakartenak.
- Obra osagarriak.



- Prozedura irekia jarraitu eta eskaintzarik ez jasotzea.
- Lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako gehieneko mugetatik beherakoak izatea.

Jarraian, azalduko dira zein izan diren gehiagotan publizitate gabeko prozedura negoziatua erabili duten departamentuen arrazoiak, hain zuzen ere, prozedura honen erabilera justifikatzeko:

Gizarte Politikako Departamentuak kasu gehienetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili du kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak jarritako goi mugak baino txikiagoak direlako. Gainera ikus daiteke ere badela kontratu bat non justifikazio hori den aurrez prozedura ireki bat tramitatu dela xede berberarekin.

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak ere kasu askotan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili du kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak jarritako goi mugak baino txikiagoak direlako. Honela tramitatutako beste kontratu sorta bat sinaturiko publizitate babesekoek osatzen dute.

Bere aldetik, Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko departamentuak arrazoitzen ditu bere publizitate gabeko prozedurak bere kopuruagatik.

Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Departamentuak kasu gehienetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili du kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak jarritako goi mugak baino txikiagoak direlako. Gainera ikus daiteke ere badirela hainbat kontratu non justifikazio hori arrazoi tekniko eta artistikoengatik datorren, lanen exekuzioa enpresari bakar baten esku uztea dakartenak.

Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko departamentuak bezalaxe, Ingurumena eta Lurralde Antolaketakoak arrazoitzen ditu bere publizitate gabeko prozedurak bere kopuruagatik.

Azkenik, Zerbitzu Orokorretakoak ere justifikatzen dituzte bere publizitate gabeko prozedura negoziatu gehienak kopuruarengatik. Gainera ikus daiteke ere badela kontratu bat non justifikazio hori den aurrez prozedura ireki bat tramitatu dela xede berberarekin.

Esleitzeko moduari dagokionez, lizitatutako kontratazioen %40,96 lehiaketa bidez esleitu da, hau da, gastu bolumenaren %95,64.



Sailkapen horrekin lotuta, adierazi behar dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legea indarrean jarri denetik lehiaketak eta enkanteak desagertu direla kontratuak esleitzeko modu gisa. Horien ordean, irizpide neurgarri bakarreko kontratuak eta irizpide bat baino gehiagoko kontratuak erabiltzen dira orain kontratuak esleitzeko. Gure kasuan, sailkapena mantendu dugu bereizi nahi izan dugulako zer kasutan izan den prezioa kontratua esleitzeko irizpide bakarra (enkanteak) eta noiz erabili den esleipenetan irizpide bat baino gehiago (lehiaketak).

ESLEITZEKO ERA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONTRATU KOP./%	ZENBATEKO OSOA/%
Lehiaketa	68	154.484.298,41	40,96%	95,64%
Enkantea	0	0,00	0%	0%
Negoziatuak	98	7.039.778,84	59,04%	4,36%
GUZTIRA	166	161.524.077,25		

4.1.3. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA

Kontratazio espedienteak arruntak, presazkoak zein larrialdikoak izan daitezke.⁴

Ondoko taulan ikus daitekeenez, espediente gehienak tramitazio arruntekoak izan dira (%97,59), aurrekontu lizitatuaren %99,63.

TRAMITEA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONTRATU KOP./%	ZENBATEKO OSOA/%
Arrunta	162	160.919.491,25	97,59%	99,63%
Presazkoa	3	524.510,00	1,81%	0,32%
Larrialdikoa	1	80.076,00	0,60%	0,05%
GUZTIRA	166	161.524.077,25		

Datuen arabera, 2011n, presazko prozeduraz hiru prozedura tramitatu dira eta bakar bat larrialdiko prozeduraz. Hona hemen espediente horien banaketa:

⁴ Ikus Memoriaren IV. eranskinean, 2011n onartutako kontratuak, espedientearen tramitazioaren arabera.



DEPARTAMENTUA	KOPURUA		ZENBATEKOA	
	Presazkoa	Larrialdikoa	Presazkoa	Larrialdikoa
Diputatu Nagusia	2	0	374.650,00	0,00
Kultura, Gazteria eta Kirola	1	1	149.860,00	80.076,00
GUZTIRA	3	1	524.510,00	80.076,00

Diputatu Nagusiak bi premiazko prozedura tramitatu ditu, hauek dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Krisiaren aurkako Planerako-2011 komunikazio aholkularitza orokorra.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Legealdiko Kudeaketa Planaren balantzearen komunikazioa prentsa, irrati, kanpoalde eta Internet bidez hedatzeko zerbitzua.

Aipatzen diren kontratu hauetatik bigarrena hutsal deklaratu zen azkenik. Bere garaian premiazko prozedura arrazoitzeko hauteskundeetarako legediak ezartzen dituen mugak aipatu ziren; honen arabera herri administrazioek epe jakinak dituzte beraien komunikazio ekintzak jakinarazteko.

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak premiazko prozeduraz kontratu bat tramitatu du eta bestea larrialdizkoaz. Lehenengoaren xedea izan zen Donostiako Txuri Urdin Izotz Jauregiko hozte unitateko hainbat elementu berritzea. Orduan esan zenez, ekainaren 15ean izotza kenduko zuten uda osorako eta kirol jardueren denboraldia irailaren lehen egunetan hasten zenerako birjartzea beharrezkoa zen; horrela kontratua gauzatzeko epea bi hilabetekoa izango zen.

Beste espedienteak, larrialdizko prozeduraz tramitatutakoak, honako xedea du: Artelekuko berogailua, erregulazioa, elektrizitatea eta galdara gelaren desinfekzioa.

3/2011 Errege Dekretu Legegileak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren legearen testu bategina onartzekoak, ezarritakoaren arabera, bidezko izango da larrialdiko izapidetzea egitea, Administrazioak berehalako erantzuna eman behar duenean hondamenezko gertaeren edo arrisku handiko egoeren aurrean.



4.1.4. HUTSIK GELDITU DIREN LIZITAZIOAK

2011. urtean onartutako kontratuen kapituluko atal honetan, hainbat arrazoiengatik azkenik gauzatu ez diren lizitazioak izango dira hizpide.

Honela, jasotako datuak aztertuz gero hutsik gelditutako prozedurak sei izan direla ikus daiteke. Ondorengo taulan espediente horiek zein diren argituko da, beraien kopuruaren berri emango da eta azkenik Departamentuek hutsik aitortzeko emandako arrazoiak azalduko dira:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Legealdiko Kudeaketa Planaren balantzearen komunikazioa prentsa, irrati, kanpoalde eta Internet bidez hedatzeko zerbitzua	227.150,00 €
<hr/> <u>Ez da eskaintzarik jasotzen</u>	
2.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Legealdiaren Kudeaketa Planaren balantzearen komunikazioaren sormena	70.800,00 €
<hr/> <u>Ez da eskaintzarik jasotzen</u>	
3.- Eibarko Egogain gerontologia zentroan kafetegi zerbitzuaren ustiapena	0,00 €
<hr/> <u>Ez da eskaintzarik jasotzen</u>	
4.- Erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko Debarrena eta Urola Erdia, Urola Kosta eta Donostiarekin lotura zerbitzu publikoaren kudeaketaren kontratazioa	78.832.307,20 €
<hr/> <u>Aurkeztutako enpresa bakarrak ez ditu bere eskaintzaren akatsak konpontzen horretarako emandako epearen barruan</u>	
5.- Agorregi burdinolaren funtzionamendu eta mantentze zerbitzuen kontratazioa	119.012,00 €
<hr/> <u>Lizitatuak hil egin da</u>	
6.- Eibarko Egogain gerontologia zentroan kafetegi zerbitzuaren ustiapena (prozedura negoziatua)	0,00 €
<hr/> <u>Aurkeztutako eskaintzak atzera botatzen dira</u>	
<hr/>	
Total	79.249.269,20 €

Ikus daitekeenez, azkenik hutsik gelditu diren lizitazioen kopurua handia da. Kopuru hau alderatzen badugu 2011. urtean lizitatutako kopuruarekin [161.524.077,25 euro] ia erdia baliogabetu egin dela ikusiko da hainbat prozedura hutsik geratu zirelako.



4.1.5. FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA

Foru Kontratazioen Zentrala kontrataziorako laguntza organo bat da, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako eta horien menpeko entitateetako nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi askatasunez atxikitzen zaizkion neurrian.

Zentralizazioaren helburua entitate publikoen kontratazio jardueran eraginkortasun handiagoa lortzea da: alde batetik, kudeaketaren ikuspuntutik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa arintzen eta sinplifikatzen duelako; eta, beste aldetik, ekonomiaren ikuspuntutik, baldintza ekonomiko hobeak lor daitezkeelako, eta, horri esker, gastu publikoa txikitu.

2011. ekitaldian, Kontratazioen Zentralak bi lizitazio egin ditu. Lehenengoaren xedea izan da argindarraren hornidurarena eta bere zenbateko balioetsia aurrikusitako lau urteko iraupenerako 51.290.000,00 eurotako izan da. 2011. ekitaldian Foru Aldudiaren gastua argindarrari dagokionez 4.150.000,00 eurokoa izan zen gutxi gorabera.

Beste lizitazioaren xedea izan zen posta zerbitzuaren kontratazioa. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuen parte hartu, bakarrik espedientearen kudeaketari dagokionez.



4.2. 2011KO EKITALDIAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK

Memoria honen hasieran adierazi dugunez, 2011. urtean esleitu diren kontratuen barruan ekitaldi horretan egindako esleipenak sartu dira, alde batera utzita kontratua lehenago onartu den edo ez. Aitzitik, 2011n onartu baina ekitaldi horren amaieran esleitu ez diren kontratuak kanpoan utzi dira.

Irizpide horien arabera, 2011. urtean 166 kontratu onartu dira, eta 161 esleitu. Esleitu diren 161 kontratu horietatik, 138, 2011n onartutakoak dira eta 23, 2010. urtean.

Txosten honen hasierako oharretan adierazitakoa gogoratzuz, 2011. urtean egindako esleipenen datuak banakatuta ematen direnez, esleipenak lote esleituen kopuruarenak izango dira, hau da, esleipen kopurua handiagoa izango da esleitutako kontratuena baino.

Zehazki, 2011. urtean esleitutako 161 kontratuetan 168 lote ageri dira. Lote kontzeptua ez da ageri bakarrik kontratuaren xedea aurrez adierazitako lotetan banatuta dagoenean, esleipendun bat baino gehiago izan dezaketen kontratu guztietan ere ageri da.

Hortaz, 2011. urtean 170 lote esleitu dira, 156.653.864,42 euro guztira. 2011ko ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoei erreparatzen badiegu, ondoko hiru hauek nabarmendu behar ditugu beren zenbatekoagatik:

- Erabilera orokorreko bidaiarien herriarteko garraio erregular iraunkorreko Bidasoa Behea eta Oarsoaldea eskualdeak eta horien Donostiarekiko loturak (LUR-E-01) zerbitzu publikoaren kontratazioa → 88.189.520 euro.
- Haur eta nerabeen tratu txar edo abandonu arazoak dituzten familietan gizarte eta hezkuntza mailan esku hartzeko zerbitzuak → 17.060.176,80 euro.
- Mendeko pertsonei zuzendutako hainbat gizarte ekipamendu kudeatzeko emakida kontratu administratiboa → 15.518.804,51 euro.



4.2.1. ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA

2011. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen kontratuen esleipenak %7,92 jaitsi dira batekoz beste, eta horrek 13.472.518,54 euroko aurrezpena ekarri du. Departamentuka, honela banatzen da jaitsiera portzentajearen batez bestekoa:

DEPARTAMENTUA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Diputatu Nagusia	6,85%	29.272,14 €
Ogasuna eta Finantzak	11,17%	95.070,53 €
Gizarte Politika	3,49%	1.595.085,40 €
Kultura, Gazteria eta Kirola	1,63%	63.784,25 €
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	14,99%	148.942,62 €
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	5,55%	55.038,82 €
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	22,35%	1.216.180,52 €
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	8,84%	9.466.148,37 €
Zerbitzu Orokorrak	17,03%	802.995,89 €
GUZTIRA	7,92%	13.472.518,54 €

Aurreko taulan ikus daitekeenez jaitsiera portzentajeak Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuan jasotako %1,63tik Ingurumena eta Lurralde Antolaketa Departamentuan jasotako %22,35eraino zabaltzen dira.

Departamentuetako kontratuen jaitsiera portzentajeak dakarren aurrezpenari erreparatuz gero, agerian jartzen da Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturretako Departamentua nagusitu dela, 9.466.148,37 euro murriztu edo aurreztu baititu bere lizitazioetan.



KONTRATU MOTA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Obrak	22,11%	3.195.974,59 €
Hornidurak	14,70%	854.916,32 €
Zerbitzuak	6,43%	2.300.795,92 €
Zerbitzuen kudeaketa	6,33%	7.110.480,00 €
Bereziak	0,40%	4.851,71 €
Pribatuak	1,02%	5.500 €
Esparru Akordioa	0,00%	0,00 €
GUZTIRA	7,92%	13.472.518,54 €

Portzentualki, obra kontratuak, hornikuntzak eta zerbitzuak dira jaitsiera portzentajeen batez besteko handiagoa dutenak: %22,11, %14,70, eta %6,43 hurrenez hurren.

Kontratu mota bakoitzean aurreztutako zenbatekoari erreparatuz gero, ikus daiteke zerbitzuen kudeaketakoak izan direla aurrezpen handienekoak. Izan ere, kontratu mota honetan izandako 7.110.480.00 euroko beherapena Aldundiak 2011ko ekitaldian egindako kontratu guztien beherapenen %53 inguru da.


Bestetik, zenbatekoan jaitsierarik handiena izan duen espedientea erabilera orokorreko bidaiarien herriarteko garraio erregular iraunkorreko Bidasoa Behea eta Oarsoaldea eskualdeak eta horien Donostiarekiko loturak (LUR-E-01) zerbitzu publikoaren kontratazioa izan da: 95.300.000,00 euroko lizitazio aurrekontua izan zuen eta 88.189.520,00 eurotan esleitu zen azkenean (7.110.480,00 euroko jaitsiera).



4.2.2. LIZITATZAILEEN AZTERKETA

Atal honetan, aurreneko asmoa da aztertzea zenbat lizitatzailer aurkeztu diren 2011ko ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu desberdinek egindako kontratueta. Ondorengo grafikoan kontratuen banaketa bat egin da, bertara jo duten lizitatzailer kopuruaren arabera. Hemen esan behar da publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan bakar-bakarrik kontratuaren azken esleipenduna konputatu dela lizitatzaileretat. Aurkeztu diren gainerakoei buruz ez da ezein daturik jaso.

Lizitatzailer kopurua



2011n zehar eta aurreko paragrafoan adierazitako muga kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako kontratazio prozeduretara 356 lizitatzailer aurkeztu dira guztira.⁵

Kontratisten %80,34 kontratazio prozesu bakarrera aurkeztu da 2011ko ekitaldian; %18,54 bi eta bost aldi bitartean aurkeztu da, eta %1,12 sei alditan baina gehiagotan. Ondorengo taulan jasotzen da zer lizitatzailer aurkeztu diren bost aldiz edo gehiagotan Foru Aldundiak 2011n deituriko kontratazio prozeduretara.

⁵ Ikus Memoriaren VII. eranskinean, 2011ko ekitaldiko esleipenak, departamentuen, kontratu motaren eta lizitatzaileraren arabera.



LIZITATZAILEA	LOTE KOP.	ESL. KOP.	ZENBATEKOA
GIROA, S. A. U.	14	11	1.992.932,49
CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.	9	1	491.597,42
URBYCOLAN, S.L.	9	3	1.740.681,18
EULEN, S.A.	6	0	0,00
CLECE, S.A.	5	1	1.897.839,92
CONSTRUCCIONES MOYUA, S.A.	5	1	1.905.770,30
ALTUNA Y URIA, S.A.	5	0	0,00
CAMPEZO CONSTRUCCION	5	0	0,00
FERROSER INFRAESTRUCTURAS	5	0	0,00
LURGOIEN, S.A. (GUILLERMO IBARGOYEN)	5	0	0,00
OBRAS ESPECIALES GIPUZKOA, S.A. (OBEGISA)	5	0	0,00

Kontratazio prozeduretara aurkeztu diren 356 lizitatzailleetatik, erdia baino gehiago (%65,17) ez da ezein deialditan esleipendun izan; aitzitik, lizitatzailleek %34,83ri kasu guztietan esleitu zaio kontratua.

Bestetik, aldi baterako 28 enpresa batasun aurkeztu dira, hau da, lizitatzailleek %7,87. Esleipenei dagokionez, enpresa batasunik gehienak (zehazki 26) ez dira gertatu esleipendun inongo deialditan; aldiz, bik %100eko esleipen portzentajea dute.

Esleipenen zenbatekoari dagokionez, esleitu den zenbateko osotik 156.653.864,42 euro (%1,27) enpresa batasunei esleitutako kontratuei dagokie.

2011n esleipendun gertatu diren lizitatzailleek helbide sozialari dagokionez, honako datu hauek dauzkagu:



Probintzia	Kontratu Mota	Zk	Kopurua
ARABA		Portzentaia: 2,38%	0,41%
	Obrak	2	522.809,46
	Zerbitzuak	1	74.210,20
	Hornidurak	1	45.761,58
		Guztira: 4	642.781,24
BARCELONA		Portzentaia: 2,38%	0,36%
	Zerbitzuak	2	284.103,22
	Hornidurak	2	278.494,35
		Guztira: 4	562.597,57
BIZKAIA		Portzentaia: 8,33%	1,01%
	Obrak	1	534.359,85
	Zerbitzuak	11	661.269,55
	Hornidurak	2	391.248,19
		Guztira: 14	1.586.877,59
GIPUZKOA		Portzentaia: 76,79%	95,74%
	Esparru akordioa	1	42.000,00
	Bereziak	3	1.212.432,89
	Obrak	26	9.776.014,26
	Zerbitzuen kudeaketa	4	105.165.578,42
	Oribatuak	9	516.445,00
	Zerbitzuak	71	30.099.642,93
	Hornidurak	15	3.163.014,98
		Guztira: 129	149.975.128,48
MADRID		Portzentaia: 7,74%	1,11%
	Obrak	2	424.969,55
	Oribatuak	1	16.500,00
	Zerbitzuak	6	365.044,84
	Hornidurak	4	925.843,53
		Guztira: 13	1.732.357,92



Probintzia	Kontratu Mota	Zk	Kopurua
NAVARRA		Portzentaia: 1,19%	0,13%
	Zerbitzuak	1	45.211,70
	Hornidurak	1	155.170,00
		Guztira: 2	200.381,70
SEVILLA		Portzentaia: 0,60%	0,04%
	Zerbitzuak	1	55.900,00
		Guztira: 1	55.900,00
VALLADOLID		Portzentaia: 0,60%	1,21%
	Zerbitzuak	1	1.897.839,92
		Guztira: 1	1.897.839,92
	GUZTIRA KONTRATUAK ETA KOPURUA:	168	156.653.864,42



Lehen aipatu da 356 lizitatzaille aurkeztu direla kontratazio prozedura desberdinetara, eta horietatik %19,66 batera baino gehiagotara aurkeztu dela.

Ondorengo taulan lizitatzaille kopuruari buruzko zenbait datu aurkezten dira, departamentuz departamentu. Bertan, departamentu desberdinetako kontratueta aurkeztu diren lizitatzailleak eta departamentuaren beraren barruan kontratu mota desberdinetara aurkeztu direnak bikoiztuta ageri dira. Hori kontuan hartuta, esan daiteke 2011ko ekitaldian esleitutako 168 loteetarako 417 lizitatzaille aurkeztu direla, eta honako banaketa dutela departamentuz departamentu.⁶

DEPARTAMENTUA	LIZITATZAILE KOPURUA	ESLEITUTAKO ZENBATEKOA	ESLEIP. KOP. (loteak)
Diputatu Nagusia	9	398.227,86	5
Ogasuna eta Finantzak	15	755.748,54	8
Gizarte Politika	61	44.174.102,14	20
Kultura, Gazteria eta Kirola	41	3.847.380,66	31
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	32	844.462,13	11
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	16	936.600,00	17
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	70	4.225.631,04	29
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	112	97.559.943,04	30
Zerbitzu Orokorrak	61	3.911.769,01	17
GUZTIRA	417	156.653.864,42	168

Lizitatzaille gehien dituen departamentua Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako da, kopuru osoaren %26,86. Departamentu bakoitzak esleitutako zenbatekoei erreparatu badiegu, ikusten dugu departamentu hori bera guztien gainetik nagusitzen dela [esleitutako zenbateko osoaren %62,28]. Haren atzetik departamentu hauek datoz lizitatzaille kopuruari dagokionez: Ingurumena eta Lurralde Antolaketa [%16,79] eta Gizarte Politika eta Zerbitzu Orokorrak [%14,63 bakoitzak]. Esleitutako zenbatekoari begiratuta, %28,20ko portzentajea ere da aipatzekoa, Gizarte Politikako Departamentuari dagokiona.

⁶ Ikus Memoriaren VII. eranskinean, 2011ko ekitaldiko esleipenak, departamentuen, kontratu motaren eta lizitatzailen arabera.



4.2.3. ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK

Departamentuek lehiaketa erabili ohi dute, eskuarki, kontratuak esleitzeko. Lehenago adierazi denez, memoria honetan parekatu dira lehiaketak eta esleipen irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen duten kontratuak. Horrek esan nahi du esleipena ez dela nahitaez zertan egin eskaintzarik ekonomikoaren alde; abantaila gehien eskaintzen dituen gerta daiteke esleipenduna, baldintza administratibo berezien agirietan behar bezala ponderatutako balorazio irizpideei jarraituz.

